



ANOETAKO UDALAREN ETA KUKU PILOTA ARTEKO HITZARMENA, ELKARTEAREN URTEKO JARDUERAK AURRERA ERAMATEKO

Anoetan, 2023ko abenduaren 12an

BILDU DIRA

Alde batetik, **Egoitz Luisa Urkola** (NA: 72481667L), ANOETAKO UDALAREN izenean eta hura ordezkatzuz (IFK: P2001100C; helbidea: Herriko Plaza z.g., 20270 Anoeta), eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1.b) artikulua arabera, ekintza hau gauzatzeko behar besteko ahalmena duena.

Eta bestetik, **Jokin Leunda Altzerreka** (NA: 72516906E), KUKU PILOTA ELKARTEAREN izenean eta hura ordezkatzuz (IFK: G56452105, helbidea Apeadero Aldea 2, 20270 Anoeta).

Bi alderdiek hitzarmen hau sinatzeko nahikoa gaitasun aitortzen diote elkarri, eta honako hau

ADIERAZTEN DUTE

LEHENA: Anoetako Udalak bat egiten du Elkartearen helburuekin, euskal kulturaren ondare immateriala zaintzea, herri kirolak eta pilota, zehatz-mehatz.

Anoetako Kuku Elkartek urteak eman ditu Udal Pilota Eskolako klaseak kudeatzen, beti ere udalaren ardurapean, zerbitzua Udalak eskaini izan duelako orain arte. Aldiz, 2023-24 ikasturtetik aurrera, Kuku Pilota Elkartek bideratuko du Pilota Eskolaren zerbitzu osoa, partaideen kuotak kobratzea barne.

Hortaz, Udalak diru-laguntza eman nahi dio elkarte honi 2023-24 ikasturteko jardueretako hainbat gasturi aurre egiteko: pilotak, lurra markatzeko zinta berezia, partaideentzako kamisetak edota sudaderak, eta bestelako materialak.



Elkarte hau egunean dago Ogasuneko eta Gizarte Segurantzako ordainketetan, eta ez dago sartuta hori lortzeko debekuetan, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13. artikulua 2. eta 3. ataletan aurreikusitakoetan.

BIGARRENA: Hitzarmen honen diru-ekarpenarekin, Udalak lagundu nahi dio Kuku Pilota Elkarteari urteko jardueretako gastuei aurre egiten.

HIRUGARRENA: Anoetako Udalak eta Kuku Pilota Elkartek bat egiten dugu hitzarmen honen bidez proiektua sustatzeak eta garatzeak lehen aipatu helburu horiek betetzea ekarriko duela.

LAUGARRENA: Udalaren Diru-laguntzen Plan Estrategikoan 2022-24 aurreikusita dago diru-kopuru bat Kuku Pilota Elkartearentzat: 2.000 euro.

Dirulaguntza lerroa: Kuku Pilota Elkarteari

Eskumen arloa	Kultura
Sektore hartzaileak	Kuku Elkartea
Helburuak	Kuku Pilota Elkarteari laguntzea euskal kirol tradizionala den pilota sustatzen herriko haur eta gaztetxoek artean.
Lortu nahi diren ondorioak	Pilotaren jarduera sustatzea eta zabaltzea urtean zehar, ikastaro eta txapelketen bidez, besteak beste.
Egikaritze epea	Urtean zehar
Kostuak eta finantzaketa iturriak	Udalak diru-laguntza handia ematen badu ere, beste diru-iturriak ere saiatzeko da bilatzen Kuku Pilota Elkartea.
Ekintza Plana	Dirulaguntza izendunei dagokien legezko tramiteak jarraituko dira: hitzarmena eta bere onarpena, dirulaguntzaren %75a aurreratu, justifikazioa eta %25a ordaindu
Jarraipena eta ebaluazioa	Elkartek memoria aurkeztu behar du, jardueren berri emanez. Fakturak ere aurkeztu behar ditu, hala nola balantze ekonomikoa (sarrerak eta gastuen balantzea) eta Gizarte Segurantzaren zein Ogasunean egunean dagoela ziurtatzen duten agiriak.



Partida	Onuraduna	Azalpena	Kopurua	Mota	Indarreko planean aurreikusia
1 0000 481 330 07 00 (992)	Kuku Elkartea	Urteko jarduerak egiteko	2.000 €	Izenduna	2.000 €

KLAUSULAK

LEHENA.- Hitzarmenaren helburua.

Hitzarmen honen helburua hau da: Anoetako Udalaren eta Kuku Pilota Elkartearen arteko lankidetzaz-esparrua ezartzea.

BIGARRENA.- Anoetako Udalaren betebeharrak

- Anoetako Udalak konpromisoa hartzen du 2.000 euroko diru-laguntza emateko Kuku Pilota Elkarteari.

HIRUGARRENA.- Kuku Pilota Elkartearen betebeharrak

- Kuku Pilota Elkartek herrian pilotaren sustapena bermatzeko konpromisoa hartzen du, eta baita Anoetako Udalari jakinarazi behar dion informazio guztia jakinarazteko ere.
- Kuku Pilota Elkartek ekimenaren memoria, balorazio txostena eta fakturak Anoetako Udalari aurkezteko konpromisoa hartzen du, hala nola Gizarte Segurantzaz eta Ogasunean egunean egotearen ziurtagiriak.

LAUGARRENA.- Hitzarmenaren jarraipena.

Hitzarmenean ezarritakoa beteko dela ziurtatzeko, behar diren bilerak egingo dituzte Kuku Pilota Elkarteko arduradunak (Jokin Leunda Altzerreka) eta Anoetako Udaleko kultur dinamizatzaileak (Tere Soto Bermejo).



BOSGARRENA.- Hitzarmenaren indarraldia.

Hitzarmen honek ondorioak izango ditu 2023-24 ikasturtean, eta izenpetu ondorengo egunaz geroztik egongo da indarrean.

SEIGARRENA.- Diru-laguntzaren bateragarritasuna.

Hitzarmen honek arautzen duen diru-laguntza bateragarria izango da helburu bera duten eta bestelako administrazioetatik edo erakunde publikoetatik edo pribatuetatik datozen bestelako diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin. Hala eta guztiz ere, emandako laguntzen zenbatekoa, bakarrean edo batera, inola ere ezingo da izan diru-laguntzaren xedearen balioa baino handiagoa.

ZAZPIGARRENA.- Diru ekarpena eta zuriketa.

Hitzarmen honetako bigarren klausulan aipatutako diru ekarpen zuzena honela egingo da: hitzarmena sinatu eta gehienez ere hilabeteko epean jasoko du Kuku Pilota Elkartek diru-ekarpenaren %75a (1.500 €). Gastua 1 0000 481 330 07 00 (992), *Diru-laguntza Kuku Pilota Elkarteari* aurrekontu-kredituari egotziko zaio.

Horretarako, elkarteak agiri hauek aurkeztu beharko ditu:

- Identifikazio Fiskaleko Kodearen agiriaren kopia
- Ogasuneko zein Gizarte Segurantzako betebeharrak egunean izatearen ziurtagiriak
- Erantzukizunpeko adierazpena, onuradun izateko debekurik ez duela adierazten duena (Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. Artikulua 2. eta 3. Ataletan aurreikusitakoaren arabera) eta xede berberarekin dirulaguntzak eskatu edo jaso jaso dituen ala ez.
- Hitzarmena sinatuko duen pertsona erakundeko ordezkaria dela egiaztatzen duen agiria.
- Kontu zenbakia, eta horren titularra elkarteak dela egiaztatzen duen agiria.



Gainontzeko %25a (500 €) ikasturtea amaitutakoan eta justifikazio dokumentuak (jardueren memoria, gastu eta sarreraren balantzea eta fakturak) aurkeztu ondoren ordainduko zaio. Dokumentazio hau 2024ko urriaren 31n beranduenez aurkeztuko du Kuku Pilota Elkartea.

Edozein gisatara ere, udalaren diru ekarpena jaso ahal izateko, aurreko ekitaldiko harremanak eguneratuta egon behar du.

ZORTZIGARRENA.- Hitzarmena deuseztatzeko arrazoiak.

Hitzarmen hau deuseztatu ahal izango da:

- Izenpetzen duten bi alderdiek hala erabakita.
- Alderdiek hartutako konpromisoak larriki ez betetzeagatik.

BEDERATZIGARRENA.- Hitzarmenaren izaera.

Hitzarmen honek sinatzaileen artean ondorio juridikoak ditu, baina ez du kontratu izaerarik, eta ez ditu bere baitan hartzen kontratu batek dituen prestazioak. Hitzarmenaren xedea da entitatea eta Udala helburu berarekin elkarlanean aritzea.

Sektore Publikoko Araubidea onartzen duen, urriaren 2ko, 40/2015 Legearen 47. artikuluan ezartzen diren hitzarmen-moten barruan kokatzen da hitzarmen hau, hain zuzen ere, administrazio publikoaren eta entitate pribatu baten artekoa, eta hitzarmenaren araubidea legearen VI. kapituluan xedatutakoari lotuko zaio. Modu horretan, hitzarmenaren helburua izango da entitate sinatzaileak Udalari emango dion laguntzari esker, arloaren kudeaketa hobetzea; udalak egingo duen ekarpenak ez du inoiz gaindituko hitzarmenean jasotako ekimenen gastua; eta hitzartzen den dirulaguntzak 38/2003 Dirulaguntzen inguruko Lege Orokorra bete beharko du.

Hitzarmen hau interpretatu eta betetzeko orduan sor daitezkeen gai gatazkatsuak aztertzea eta ebaztea administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren ardura izango da.



HAMARGARRENA.- Ez betetzea. Hitzarmen honetan ezarritako baldintzetako edozein ez betetzea, hitzarmena berraztertzeko kausa izan daiteke, eta horrek ekar lezake hitzarmena baliogabetzea eta bidegabe jasotako diru-zenbatekoak itzularaztea.

HAMAIKAGARRENA.- HIZKUNTZA BETEBEHARRAK

Kuku Pilota Elkartek Udalaren hizkuntza jarduera arautzeko planaren arabera jokatu du, printzipio hauek oinarri hartuta:

- Idatzi, iragarki, ohar eta gainerako komunikazioak euskaraz ezagutarazi beharko ditu, eta publizitatearekin ere, ahozko zein idatzia izan, berdina jokatu du.
- Kuku Pilota Elkartek Udalarekin ahozko eta idatzizko harremanak euskaraz izango ditu, hori baita administrazio honen lan hizkuntza.

Eta zalantzak argitzeko edo laguntza eskatzeko aukera izango dute Udalaren Euskara departamentura joz.

HAMABIGARRENA.- Genero-berdintasunaren arloko betebeharrak.

Pertsona edo erakunde onuradunak aplikatzekoa zaion indarreko araudi guztia errespetatu beharko du; eta bereziki Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legea. Erakunde onuradunak, diruz lagundutako jardueran, honako printzipio orokorrak bete beharko ditu:

- Hizkera inklusiboa eta irudi ez sexistaren erabilera dokumentazio, euskarri eta errotulazio guztian. Jarduerak sustatzeko egiten dituen kartel, testu eta agirietako edukitan hizkuntzaren eta irudien erabilera ez sexista egin beharko du.
- Berdintasunean eragin positiboa izatea bermatzea.
- Genero ikuspegia eta parekidetasun irizpideak txertatzea proiektuetan.
- Proiektu eta memorieta sexuagatik banandutako datuak erabiltzea.
- Ez du sortuko sexuagatik bereizkeria zuzena edo zeharkakoa eragiten duen jarduerarik.



HAMAHIRUGARRENA.- Ingurumen betebeharrak.

Erakunde onuradunak ingurumen irizpideak hartu beharko ditu kontuan bere jardunean: aurrezte eta energia eraginkortasuna, hondakin frakzio ezberdinen sailkatze egokia (horiek sortzeari aurrea hartzeaz gain), tokiko bioaniztasunari kalterik ez sortzea (habitat naturalak, espezieak eta prozesu ekologikoak), mugikortasun iraunkorra sustatzea eta jendaurreko ekitaldirik antolatuz gero tokiko elikagaiak sustatzea, besteak beste.

HAMALAU GARRENA.- DATU BABESA

Hitzarmenaren xedean adierazitakoaren arabera, lanak/zereginak/zerbitzuak egiteko, ez da beharrezkoa Anoetako Udalarenak diren datu pertsonalak eskuratzea. Horrela, debekatuta dago Anoetako Udalarenak diren datu pertsonalak tratatzea, eskuratzea eta ikustea.

Datu pertsonalak nahi gabe eta baimenik gabe ikusiz gero, erakundeak konpromisoa hartzen du ezagutu dezakeen informazioa sekretupean eta isilpean gordetzeko eta arduraduna den erakundeko datuen babesaren ordezkariari gertatutakoa berehala jakinarazteko.

Horiek horrela, erakundeko langileak behartuta daude datuak hirugarren pertsonari ez ezagutaraztera, transferitzera, ematera edo jakinaraztera, eta betebeharrak hori Anoetako Udalarekin duen harreman juridikoa amaitu ondoren ere mantenduko da.

Oro har, Anoetako Udalak ezarritako eta emandako informazioaren segurtasun neurriak eta jarraibideak bete beharko dira.

Eta goian azaldutakoarekin ados daudela frogatzeko, bi alderdiek honako hitzarmen honen bi ale izenpetzen dituzte, adierazitako egunean eta lekuan.

Anoetako Udalaren izenean

Sin.: Egoitz Luisa Urkola

Kuku Pilota Elkartea

Sin.: Jokin Leunda Altzerreka